


0- SARRERA GAIA: ESTATUA, KONSTITUZIOA ETA KONSTITUZIO ZUZENBIDEA

1.KONSTITUZIO ZUZENBIDEA, ESTATUAREN ZUZENBIDE

1.1. Konstituzioa, boterea antolatzeko lanabes

-Lurralde guztiek ez dute konstituzioa (Erresuma Batua, adibidez)



-Botere eratuak: legegilea, betearazlea eta judiziala. Hauen parean Botere konstituziogilea dago, (konstituzioa egiten duen boterea; demokrazian herriaren esku dago).

Konstituzio gainean bakarrik botere politikoa dago (Botere konstituziogilea). Herrialde bakoitzak egiten du konstituzioa nahi denaren arabera, herria subiranoa delako. (Botere konstituziogilea ez dauka muga).

3 atal bereizten dira konstituzioan: Ideologikoa, dogmatikoa eta organikoa

-Berdintasun printzipioa garrantzi zentrala. Lehen konstituzio modernoak garatu arte ez zegoen. (Noblezia, kleroa ta herri xehea). Berdintasunaren bi kontzeptu: FORMALA (Bozkatzeko eskubidea, adb) eta MATERIALA (Gizon ta emakume arteko ezberdintasunak)

-Konstituzioa **hitzarmen sozialaren** hitzarmena da (jendarte bizi-tza antolatzeko). Rousseau oso ondo garatu ideia.

● GOBERNANTEAK

Rousseau agertu arte gobernante eta gobernatuen arteko akordioa zen; Rousseau ezetz, gobernatuek hitzarmen soziala gauzatu behar zutela, gobernatuen arteko adostasunaren idea finkatu zuen. Hitzarmen soziala botere politikoa antolatzeko gizabanakoaren hitzarmena da, gaurko konstituzioa hitzarmen sozialaren isladapen juridikoa da.

● GOBERNATUAK

-Estatu konstituzionala, konstituzioaren arabera antolatu den Estatu da. Estatu izango da botere politikoa antolatzeko sortzen den egitura politikoa eta konstituzioa bilakatzen da Estatuaren artikulazio juridikoaren baliabide.

1.2. Estatuaren zuzenbidea ordenamendu juridiko bezala

-Arau (lege, erregelamendu) guztiek osatzen dute ordenamendu juridiko (sistema legal ordenatu) bat. Arauek sistema bat osatzen dute.

Ordenamendu juridikoa:

-1. Unitarioa da. Instantzia bakar batek sortzen du zuzenbidea (Estatua). Erdi Aroan ez zen holakoa; noblezia, eleiza... arauak sor zezaketen. **Zuzenbide iturriak batzuk** izan arren **iturri sistema bakarra** da. Espainiar kasuan zuzenbide iturriak (legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak dira) hortik sortzen da zuzenbidea Espainian, iturri bakar batean integraturik. **Bi motatako arauak:** JOKABIDE ARAUAK (gure jokabidea antolatzen dutenak; abortuaren legea, adb) eta ANTOLAKETA ARAUAK (Erakundeak eta prozedurak finkatzen dituztenak; erakunde baten lege organiko bat, adb) **Zeren arabera sailkatzen dira arauak?** Bi printzipio nagusi; **HIERARKIA**, arau guztiak ez dira LERRUN (maila; rango) berekoak, lerrun baxuagoko arauak ezin diote kontra egin lerrun altuagokoei. **ESKUDUNTZA**, (competencia, eskumen), Estatu baten barruan dauden instituzioak banatu egiten dira eta horren arabera eremu batzuetan jardun dezakete eta beste batzuetan ez.

-2. Koherentea da, barne kontraesanik gabekoa (teorian), praktikan badaude **ANTINOMIA** (bi lege elkarren artean talka egitean) hori konpontzeko lehendabizi irizpide **HIERARKIKOA** hartzen da kontuan, lerrun altuagokoa lerrun baxuagokoa indargabetzen du. Bigarren irizpidea irizpide **KRONOLOGIKOA** da, arau berri eta zahar baten artean talka egitean berriak zaharra indargabetzen du. Hirugarren irizpidea **BEREZITASUNA**, lege berezi eta lege orokor baten artean talka egitean bereziak orokorrak indargabetu.

-3. Osoa da, printzipioz ordenamendu juridikoak ez du hutsune normatiborik. Praktikan, zuzenbidea errealitatearen atzetik doa eta hutsuneak zor daitezke. Zer egin hauek sortzean? **ANALOGIA**, hutsune normatiboa agertzean, fenomeno bat arautu gabe dagoena agertzean, fenomeno antzeko bati aurreikusia zegoen araua aplikatuko da. **ANALOGIA** ezin da erabili zigor zuzenbidean (penalean) . Bi mota: **LEGIS** (Lege bat aplikatzen denean analogikoki) eta **IURIS** (Zuzenbidearen printzipio orokorrak analogikoki aplikatzean).

2. KONSTITUZIO ZUZENBIDEAREN IKUSKERA EZBERDINAK

Hiru modu:

1) ARAU JURIDIKOEN MULTZO bezala: ordenamendu juridikoan nagusitasuna erakusten duten arauen multzoa. Multzo horretan (konstituzionalitate blokean) konstituzioa, oinarrizko eskubideak arautzen dituzten lege organikoak, autonomi estatutuak, hauteskunde legea, organo garrantzitsuenen araudia, KALOREN 28. artikuluan datozenak (artikulu honek zehazten du ze arau erabil dezake lege bat konstituzioaren aurkakoa dela deklaratzeko) sartzen dira.

2) DISZIPLINA JURIDIKO (Zuzenbidearen barruan kokatzen den jakintza arloa, Estatuarekin zerikusia duena) Konstituzioak ez dira beti zuzenbidearen atala izan, lehen konstituzioak ia aldarrikapen politikoak ziren. Konstituzio normatiboak XX.mendekoak.

3)ARAU ETA BOTERE POLITIKOEN HARREMAN BEZALA: Ferdinand LASALLE XIX.mendeko pentsalaria (maitasun duelo batean hilda). Marxismoaren bueltan zebilen. Esan zuen “Konstituzioaren gaineko arazoak ez dira arazo juridikoak, arazo politikoak baizik” “Herrialde bateko benetako konstituzioa herrialde batean dauden botere faktore errealetan datza”

3.KONSTITUZIO ZUZENBIDEAREN SORRERA

Bilakaera historiko baten sorrera. XVII eta XVIII mendeetan Ipar Amerika eta Europako mugimendu iraultzaileak, Frantzia (1789), AEB (1776) eta Ingalaterra (Glorious Revolution; 1688). Bertan, konstituzioaren ideia tresna bezala jaiotzen zen. Herritarrek eskubide batzuk dituztela esateko, errespetatu beharrekoak eta botere banaketa eskatzeko. Frantzian (absolutismoa), Ingalaterran (monarkiaren parlamentuaren aurka jarrera absolutista zuen), AEB (Ingalaterrak zerga pila 13 koloniei; Ingalaterrako parlamentuan onartuak; AEB ordezkari barik; modu absolutistan gobernatuak).

Lehen konstituzioaren agerpena prozesu baten bidez eman zen: Antzina erregimenaren apurketa eta konstituzio Estatuaren lehen agerpena. 1848-1914 bitartean ez zen konstituzioa berez, ez zen arau juridiko bat, dokumentu politikoa baizik. 1914tik aurrera konstituzioa arau juridiko bat moduan mantentzen da. Auzitegi konstituzionalak agertzen hasten dira 1920 aldera.

4.KONSTITUZIO ZUZENBIDEA, ZUZENBIDE PUBLIKOA

Zuzenbidea bitan banatu daiteke: **zuzenbide publikoa** eta **zuzenbide pribatua**.

–**Zuzenbide publikoa:** pertsona edo entitate pribatuen eta botere publikoen organoen arteko harremanak arautzen dituen ordenamendu juridikoen atalak eta baita administrazio publikoko organoen artekoa ere. Hemen kokatzen da zuzenbide konstituzioa. Gainera konstituzio zuzenbideak izaera juridikoa ematen die gainontzeko zuzenbidearen adarrei. **Izaera juridikoa =** Benetako araua, epaileek aplikatzen dutena.

–**Zuzenbide pribatua:** partikularren arteko harreman juridikoez arduratzen den zuzenbidearen eremua.